UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

Urola Kostako enpresentzako informazio buletina

infoUKUE

Boletín empresarial de Urola Kosta

infoUKUE 24 - 2011/11/04

Berriak

Ekonomia...

- Gipuzkoako enpresen salmentak %1,7 igo dira, esportazioen eraginez
- Gipuzkoako langabezia tasa %7,5eraino jaitsi da 3. hiruhilekoan
- Salmentek eta eskaerek gora egin arren, Gipuzkoako enpresen konfiantzak behera egin du
- Gipuzkoako industria produkzioak gora egin du irailean
- Hipoteka maileguen erreferentziazko indizea (euribor) %2,110ra igo da urrian
- Espainiako Bankuak ekonomiak hazkunderik ez izatearen arriskua iragarri du

Enpresak...

- Negozio ereduei buruzko tailer berria Urola Kostan
- Enpresentzako Barnetegi Teknologikoak: 2011ko udazkeneko deialdiak
- GAIAk IKT sektoreko enpresei laguntzeko plataforma sortu
- Enpresarien proposamena krisialdia gainditzeko
- Salbazioa, berrikuntza eta kanpo salmenta
- Euskadiko ingenieritza bat, enpresa berritzaile eredu
- Enpresa familiarrek biziurapen krisi propioari aurre egin behar diote
- Europako ETEei lainoa interesatzen zaie eta Frantziak cloud computingeko estrategia publiko bat sortu du

Noticias

Economía...

- Las exportaciones impulsan un aumento del 1,7% de las ventas de las empresas de Gipuzkoa
- La tasa de paro desciende hasta el 7,5% en el tercer trimestre en Gipuzkoa
- Se desploma la confianza de las empresas guipuzcoanas, a pesar del ligero aumento en ventas y pedidos
- La producción industrial guipuzcoana aumenta en septiembre
- El principal índice de referencia de los préstamos hipotecarios (euríbor) sube hasta el 2,110 % en octubre
- El Banco de España avisa del riesgo de crecimiento nulo de la economía española

Empresas...

- Nuevo taller sobre modelos de negocio en Urola Kosta
- Barnetegis Tecnológicos para empresas: convocatoria otoño 2011
- GAIA lanza una plataforma de apoyo a empresas del sector TIC
- Propuestas de los empresarios para superar la crisis
- La salvación, innovar y vender fuera
- Una ingeniería vasca, ejemplo de innovación en plena crisis
- La empresa familiar se enfrenta a su propia crisis interna de supervivencia
- Las pymes europeas se interesan por la nube y Francia crea una estrategia pública de cloud computing

Laguntzak

- Energia berriztagarrien arloko inbertsioentzako laguntza publikoen 2011ko programa
- (+...)

Ayudas

- Programa de Ayudas Públicas a Inversiones en Energías Renovables 2011
- (+...)

Jardunaldi eta ikastaroak

Jardunaldiak...

- Energia eta Industria: Berrikuntza eta garapen teknologikoa energia-agertoki berrian

Ikastaroak...

Cursos y jornadas

Jornadas...

- Energía e Industria: Innovación y desarrollo tecnológico en el nuevo escenario energético

Cursos...

- Zure web gunea nola sustatu behar den eta zein etorkizun aukera dituen
- Lehiakortasun tailerra: Negozio ereduak sortzea
- Google Calendar

- Promociona y haz crecer la página web de tu empresa en Internet
- Taller de mejora competitiva: Generación de modelos de negocio
- Google Calendar

BERRIAK - Ekonomia

Gipuzkoako enpresen salmentak %1,7 igo dira, esportazioen eraginez

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Sailaren azken datuen arabera, urteko lehen bederatzi hilabeteetan Gipuzkoako enpresen salmentak %1,7 hazi dira. Hazkunde horren arrazoia esportazioen igoeran dago batik bat (+%15,5), barruko salmentak %3,9 gutxitu dira-eta.

Hala ere, azken hilabeteetan ekonomiaren susperraldia moteltzen ari dela ikusten da. Horrela, Gipuzkoako enpresen salmentak beherakada nabarmena jasan dute irailean: barruko salmentak %9,4 jaitsi dira, eta esportazioak, berriz, %4,9. Azken datu hori azpimarragarria da ikusita igoerak izan dituela jarraian azken 18 hilabeteetan. Hala ere, oraindik itxaron egin beharko da joera horrek jarraituko duen ala ez jakiteko.

Bestalde, enplegua egonkor mantentzen da: %0,2 jaitsiera txikia izan du bederatzi hilabete hauetan. Soldatak, aldiz, goranzko joerarekin jarraitzen dute, eta %2,4 igo dira.

Ikus Gipuzkoako Foru Aldundiaren txostena...

Igo

NOTICIAS - Economía

Las exportaciones impulsan un aumento del 1,7% de las ventas de las empresas de Gipuzkoa

Según los datos publicados por el Departamento de Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa, las ventas de las empresas guipuzcoanas han aumentado un 1,7% en los nueve primeros meses del año. Ese crecimiento es consecuencia, sobre todo, del aumento de las exportaciones (+15,5%), ya que las ventas interiores descienden un 3,9%.

A pesar de ello, en los últimos meses se aprecia una ralentización de la recuperación económica. Así, en septiembre las ventas de las empresas guipuzcoanas han experimentado un considerable descenso: las ventas interiores caen un 9,4%, mientras que las exportaciones lo hacen un 4,9%. Ese último dato resulta destacable, teniendo en cuenta que las exportaciones llevaban 18 meses seguidos de subidas.Pero todavía habrá que esperar para saber si esa tendencia va a continuar o no.

Por otro lado, el empleo se mantiene estable: disminuye ligeramente un 0,2% en estos nueve meses. Los salarios, por su parte, mantienen su trayectoria alcista, y aumentan un 2,4%.

Ver el informe de la Diputación Foral de Gipuzkoa…

Subir

Gipuzkoako langabezia tasa %7,5eraino jaitsi da 3. hiruhilekoan

Urteko hirugarren hiruhileko honetan, Euskal AEko langabetu kopurua 111.400 izan dela zenbatetsi da, horietatik 25.000 Gipuzkoari dagozkionak dira. Sexuaren arabera, emakumezkoen langabezia tasa jaitsi egin da %9,5era eta gizonezkoena, berriz, 11,3ra igo da.

Lurralde historikoetan, langabetu kopuruan beherapenik handiena izan duena Gipuzkoa izan da (%7,5 izateraino). Araban langabezia tasak behera egin du %6,9an utziz. Bizkaian, aldiz, aurreko hiruhilekoan baino pertsona gehiago egon da langabezian; lurralde horretako langabezia tasa %13,5 izan da.

Ikus Eustaten datuak...

Igo

La tasa de paro desciende hasta el 7,5% en el tercer trimestre en Gipuzkoa

El número de parados en la C.A. de Euskadi se estima en 111.400 en el tercer trimestre del año; de esos 25.000 corresponden a Gipuzkoa. En lo que respecta al colectivo de mujeres paradas en Euskadi la tasa ha bajado al 9,8%, mientras que el de los hombres desempleados ha aumentando hasta un total de 11,3%.

Por territorios históricos el mayor descenso se ha registrado en Gipuzkoa (hasta situarse en un 7,5%). En Araba la tasa de paro ha sido del 6,9% y, en cambio, en Bizkaia ha subido el número de desempleados alcanzando el 13,5%.

Consultar datos Eustat...

Subir

Salmentek eta eskaerek gora egin arren, Gipuzkoako enpresen konfiantzak behera egin du

Bateko eta besteko enpresaburuek ez dute espero urtea amaitu bitartean hobekuntzarik izango denik. Bereziki enpleguari dagozkion iragarpenak negatiboak dira. Enpresariak gehien kezkatzen dituen faktore ekonomikoak Espainiako merkatuaren ahultasuna, lan-kostuak eta nazioarteko ahulezia ekonomikoa dira.

Inkestaren emaitzak diote enpresa industrial, esportatzaile eta tamaina handikoek merkatuan abantailak dituztela. Etorkizunean landu beharreko bidea izan daiteke hau.

Ikus Adegiren prentsa-oharra...

Igo

Se desploma la confianza de las empresas guipuzcoanas, a pesar del ligero aumento en ventas y pedidos

El conjunto de previsiones que se realizan hasta el final del año son negativas, especialmente para el empleo. Los factores económicos que más preocupan a las empresas de Gipuzkoa son; la debilidad de la demanda española y los costes laborales, y la debilidad económica internacional que aumenta fuertemente.

ADEGI constata que según la encuesta las empresas industriales, exportadoras y con una dimensión suficiente tienen una ventaja comparativa, lo que muestra una vía de actuación importante cara al futuro.

Consultar nota de prensa de Adegi...

Subir

Gipuzkoako industria produkzioak gora egin du irailean

La producción industrial guipuzcoana aumenta en septiembre

Eustatek argitaratutako datuen arabera, Gipuzkoako Industria Produkzioaren Indizea %1,2 igo da aurreko urteko hilabete berarekin alderatuz.

EAE mailan, industria jarduera hazi egin da baina maila baxuagoan (%+0,6); aipatzeko da Arabak izan duen bilakaera positiboa (%+5,5). Bizkaiak, aldiz, atzerakada izan du bere industria produkzioan (%-2,2).

Ikus Eustaten prentsa oharra…

▲ Igo

Según datos publicados por Eustat, en el mes de septiembre el Índice de Producción Industrial (IPI) de Gipuzkoa ha aumentado un 1,2% en comparación con el mismo mes del año precedente.

En el conjunto de la CAPV, la actividad industrial ha aumentado pero en menor nivel (+0,6%); destaca el avance registrado por Álava (+5,5%), en tanto que la producción industrial ha caído en Bizkaia (-2,2%).

Ver la nota de prensa de Eustat…

▲ Subir

Prentsako albisteak…

- **Hipoteka maileguen erreferentziazko indizea (euribor) %2,110ra igo da urrian (Espainiako Bankua)**
- **Espainiako Bankuak ekonomiak hazkunderik ez izatearen arriskua iragarri du (Euractiv)**

▲ Igo

Noticias en prensa…

- **El principal índice de referencia de los préstamos hipotecarios (euríbor) sube hasta el 2,110 % en octubre (Banco de España)**
- **El Banco de España avisa del riesgo de crecimiento nulo de la economía española (Euractiv)**

▲ Subir

BERRIAK - Enpresak

Negozio ereduei buruzko tailer berria Urola Kostan

Datozen azaroaren 10 eta 17an lehiakortasuna hobetzeko 3. tailerra ospatuko da, negozio eredu berriei buruzko analisi eta hausnarketara zuzendutakoa.

Tailer honek, parte hartzaileei euren negozioaren lehiakortasuna aztertzen lagunduko die, enpresaren ikuspegi orokor batean oinarrituz. Horretarako, eskema sinple eta grafiko bat aurkeztuko da, enpresei euren negozioaren egitura eta funtzionamenduaren egokitasuna aztertu, ahuleziak eta sendotasunak identifikatu eta etorkizunerako prestatzen lagunduko diena.

Informazio gehiago eta izen emateak…

▲ Igo

NOTICIAS - Empresas

Nuevo taller sobre modelos de negocio en Urola Kosta

Los próximos 10 y 17 de noviembre se celebrará el 3er taller de mejora competitiva, centrado en el análisis y reflexión sobre los nuevos modelos de negocio.

El taller permitirá a las empresas asistentes analizar la competitividad de sus negocios, a través de una visión global de la empresa. Para ello se presentará un esquema simple y gráfico, que permitirá a las empresas analizar la idoneidad de la estructura y funcionamiento de sus negocios, identificar sus debilidades y fortalezas y prepararse para el futuro.

Más información e inscripciones…

▲ Subir

Enpresentzako Barnetegi Teknologikoak: 2011ko udazkeneko deialdiak

Euskadi Innovak, EAEko enpresei zuzendutako Barnetegi Teknologiko berriak antolatu ditu, hauek, teknologia berriei ahalik eta etekin handien atera diezaioten, euren merkatuko posizionamendua hobetuz.

Barnetegi teknologikoa 24 orduko egonaldi bat da. Ingurune atsegin batean antolatzen da, eguneroko arazoetatik isolatzeko eta bereziki diseinatuta dago ondoko helburuak lortzeko:

- Antolakundeen etorkizunari buruz hausnartzea.
- Gaur egun gizartean, enpresan eta negozioen planteamenduan dagoen teknologiak eskaintzen digun balioa eta aukera guztiak ulertzea.
- Parte-hartzaileek informazio gizartea hobeto ulertzea, beren antolakundearen etorkizunerako erabakirik onenak har ditzaten.

Barnetegi Teknologikoaren kostua pertsonako 100€koa da.

Kontsulta itzazu hurrengo datak…

▲ Igo

Barnetegis Tecnológicos para empresas: convocatoria otoño 2011

Euskadi Innova ha organizado nuevos Barnetegis Tecnológicos dirigidos a empresas de la CAPV, con objeto de que éstas aprovechen al máximo los nuevos medios y herramientas tecnológicas que les permitirán mejorar su posicionamiento en el mercado.

Un Barnetegi Tecnológico, es un retiro de 24 horas, en un entorno agradable que aisla a los asistentes de los problemas cotidianos, y especialmente diseñado para que estos puedan:

- Reflexionar sobre el futuro de sus organizaciones.
- Comprender el valor y todas las posibilidades de la tecnología que ya está presente hoy en díaen la sociedad, en la empresa y en los planteamientos de negocio.
- Entender la sociedad de la información en la que viven para tomar mejores decisiones para el futuro de su organización.

El coste del Barnetegi Tecnológico es de 100€ por persona.

Consulta las próximas fechas disponibles…

▲ Subir

GAIAk IKT sektoreko enpresei laguntzeko plataforma sortu

Euskal Herriko Informatika eta telekomunikazio Elektronikaren klusterrak (GAIA) IKT sektoreko enpresei nazioarteko lizitaziotan laguntzeko plataforma sortu du elektronika eta IKT sektorerako. Plataforma GAIAko kide diren enpresa guztiek parte har dezaten zabalik egongo da. Helburua da enpresei aukera eskaintzea merkatura taldean

GAIA lanza una plataforma de apoyo a empresas del sector TIC

El Cluster de Electrónica Informática y Telecomunicaciones del País Vasco (GAIA-Cluster TEIC) ha lanzado una nueva plataforma de apoyo a empresas en licitaciones internacionales para el sector TIC y electrónico. El valor añadido que desea aportar la

aurkezteko, gaitasunak batu eta merkatuan dauden aukerak galdu ez ditzazten.

Ikus Gaiaren web orrialdea...

Igo

plataforma es que, en lugar de que las empresas se enfrenten a este mercado en solitario, GAIA pueda actuar como agrupador, sumando las capacidades de varias empresas si se ve que en solitario ninguna podría acceder a la oportunidad.

Consultar página web Gaia...

Subir

Enpresarien proposamena krisialdia gainditzeko

CEOEk egoera ekonomikoa hobetzen lagunduko diguten neurri batzuk aurkeztu ditu. Beste neurri batzuen artean kaleratzeagatiko egun indarrean den kalte-ordaina; hau da urtebeteko lanagatik 20 egun, 12ra edota zerora jaistea proposatzen du. Bidegabeko kaleratzeen kasuan, berriz, 45 egunetik 20ra gutxitzea proposatzen du patronalak (gehienez 24 hilabete).

Ikus CEOEren txostena...

Igo

Propuestas de los empresarios para superar la crisis

La CEOE ha difundido un catálogo de recetas para "arreglar" la economía. Entre otra serie de medidas, la patronal pide rebajar la indemnización por despido objetivo en los contratos indefinidos desde los actuales 20 días por año trabajado a 12 con un máximo de 12 mensualidades, o incluso «nada». Para los improcedentes proponen pasar de los 45 días con un tope de 24 mensualidades a 20 días.

Consultar informa CEOE...

Subir

Prentsako albisteak…

- **Salbazioa, berrikuntza eta kanpo salmenta (Diario Vasco)**
- **Euskadiko ingenieritza bat, enpresa berritzaile eredu (Diario Vasco)**
- **Enpresa familiarrek biziurapen krisi propioari aurre egin behar diote (estrategia.net)**
- **Europako ETEei lainoa interesatzen zaie eta Frantziak cloud computingeko estrategia publiko bat sortu du (Euskadi Innova)**

Igo

Noticias en prensa…

- **La salvación, innovar y vender fuera (Diario Vasco)**
- **Una ingeniería vasca, ejemplo de innovación en plena crisis (Diario Vasco)**
- **La empresa familiar se enfrenta a su propia crisis interna de supervivencia (estrategia.net)**
- **Las pymes europeas se interesan por la nube y Francia crea una estrategia pública de cloud computing (Euskadi Innova)**

Subir

LAGUNTZAK

Energia berriztagarrien arloko inbertsioentzako laguntza publikoen 2011ko programa

Informazio Iturria: EHAA
Data: 15/04/2011
Epea: 2011/11/30
Onuradunak: EAEko enpresak
Xedea: Laguntza publiko horiek inbertsioak sustatzeari begira eratu dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatuko diren arlo hauetako egitasmoei emango zaie:
– Tenperatura baxuko eguzki termikoa (gehienez ere 150 m2-ko azalera erabilgarria).
– Biomasa termikoa (gehienez ere 200 kW termiko erabilgarri).
– Energia berriztagarri mota batzuen hibridazioa.
– Eguzki fotovoltaiko bakartua edo eoliko-fotovoltaiko mistoa (gehienez ere 20 kW-ko potentzia fotovoltaikoa eta 5 kW-ko potentzia eolikoa).
– Biogasa lortzeko eta ustiatzeko instalazioak (gehienez ere 200 kW elektriko).
– Landa-biomasa tratatzeko ekipoak.
– Trukaketa geotermiko instalazioak (gehienez ere 200 kW termiko erabilgarri).
– Eguzki fotovoltaikoa sarera konektatua (gehienez ere 20 kW).
– Eolikoa sarera konektatua (gehienez ere 100 kW).
– Minihidraulikoa (gehienez ere 100 kW).
– Bideragarritasun azterlanak (trukaketa geotermikoa, minihidraulikoa, biomasa, eolikoa, etab.).
– Beste egitasmo berriztagarri batzuk.

Ikus programaren araudia…

Igo

AYUDAS

Programa de Ayudas Públicas a Inversiones en Energías Renovables 2011

Fuente: BOPV
Fecha: 15/04/2011
Plazo: 30/11/2011
Beneficiarios: Empresas de la CAPV
Objeto de la Ayuda: Estas ayudas están encaminadas a incentivar inversiones, en proyectos ubicados en la Comunidad Autónoma Vasca de los siguientes tipos:
– Solar térmica de baja temperatura (hasta 150 m² de superficie útil).
– Biomasa térmica (hasta 200 kW térmicos útiles).
– Hibridación de varios tipos de energías renovables.
– Solar fotovoltaica aislada o mixta eólica-fotovoltaica (hasta 20 kWn de potencia fotovoltaica y 5 kW de potencia eólica).
– Instalaciones para obtención y aprovechamiento biogás (hasta 200 kW eléctricos).
– Equipos de tratamiento en campo de biomasa.
– Instalaciones de Intercambio geotérmico (hasta 200 kW térmicos útiles).
– Solar fotovoltaica a red (hasta 20 kWn).
– Eólica conectadas a red (hasta 100 kW).
– Mini hidráulica (hasta 100 kW).
– Estudios de Viabilidad (Intercambio geotérmico, Mini hidráulica, Biomasa, Eólica,...).
– Otros proyectos renovables.

Ver la normativa del programa…

Subir

IKUS DIRU-LAGUNTZA GUZTIAK

VER TODAS LAS AYUDAS

Igo

Subir

JARDUNALDI ETA IKASTAROAK

Energia eta Industria: Berrikuntza eta garapen teknologikoa energia-agertoki berrian

Noiz: 2011ko azaroaren 10a eta 11

Non: Bilbao Exhibition Centre (BEC)

Gaia: Energia-eskariaren ezaugarri eta molde berriak, klima aldaketaren ondorioak enpresen estrategietan, azken aurrerapen teknologikoak edo energiaren metatzea izango dira mintegian jorratuko diren gaietako batzuk. Egungo egoera ekonomikoan, nazioartean berotegi efektua eragiten duten gasen emisioa murrizteari begirako neurrien eragina luze eta zabal aztertzea da mintegiaren helburua.

Izen emateko kuota: 200€ (dokumentazioa, kafeak eta bazkaria barne)

Informazio gehiago eta izen emateak…

Igo

CURSOS Y JORNADAS

Energía e Industria: Innovación y desarrollo tecnológico en el nuevo escenario energético

Cuándo: 10 y 11 de noviembre de 2011

Dónde: Bilbao Exhibition Centre (BEC)

Tema: Las nuevas perspectivas y patrones de la demanda energética; las repercusiones del cambio climático en las estrategias empresariales; los últimos avances tecnológicos o el almacenamiento de la energía serán algunos de los temas tratados a lo largo del seminario. El objetivo es el de aportar una amplia visión sobre las implicaciones a nivel internacional de las medidas adoptadas para reducir la emisión de gases de efecto invernadero, en el nuevo escenario económico.

Cuota de inscriipción: 200€ (Incluye documentación, cafés y comida)

Más información e inscripciones…

Subir

Zure web gunea nola sustatu behar den eta zein etorkizun aukera dituen

Noiz: 2011/11/08

Non: KZGUNEA ERNEST LLUCH zentroa - Paseo de Anoeta 7. Donostia

Gaia: Web-a eratuta eta Sarean argitaratuta dugula, orrialdea ezagutaraztera bideratu behar ditugu gure ahaleginak, eskura ditugun baliabide guztiak erabiliz, webeko bisitak sustatzeko eta gure orrialdea Interneten ezagun bihurtzeko. Ikastaro honi esker web orrialdea Interneten nola ipini ikasiko dugu.

Informazio gehiago...

Igo

Promociona y haz crecer la página web de tu empresa en Internet

Cuándo: 08/11/2011

Dónde: Centro KZGUNEA ERNEST LLUCH . Paseo de anoeta 7. Donostia

Tema: Construida la web y una vez publicada en la Red, debemos esforzarnos en que ésta sea conocida, utilizando todos los medios a nuestro alcance, para atraer visitas a ella y para tratar de que sea popular en Internet. A través de este curso aprenderemos a publicar la página Web de tu negocio en Internet.

Más información...

Subir

Lehiakortasun tailerra: Negozio ereduak sortzea

-

Noiz: azaroak 10 eta 17, 12:30-15:00

Non: UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA. Urdaneta bidea 6, Zarautz

Gaia: Tailer honek, zure negozioaren lehiakortasuna aztertzen lagunduko dizu, enpresaren ikuspegi orokor batean oinarrituz.

Horretarako, eskema sinple eta grafiko bat aurkeztuko da, zure negozioaren egitura eta funtzionamenduaren egokitasuna aztertu, ahuleziak eta sendotasunak identifikatu eta etorkizunerako prestatzen lagunduko dizuna.

Informazio gehiago eta izen emateak:

943 89 08 08 / enpresa@urolakosta.org

Igo

Taller de mejora competitiva: Generación de modelos de negocio

Cuándo: 10 y 17 de noviembre, 12:30-15:00

Dónde: MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA. Urdaneta bidea 6, Zarautz.

Tema: Este taller te permitirá analizar la competitividad de tu negocio a través de la visión global de empresa.

Para ello se presentará un esquema simple y gráfico, que te permitirá analizar la idoneidad de la estructura y funcionamiento de tu negocio, identificar sus debilidades y fortalezas y prepararte para el futuro.

Más información e inscripciones:

943 89 08 08 / enpresa@urolakosta.org

Subir

Google Calendar

Noiz: 2011/11/15

Non: KZGUNEA ALDERDI EDER – Ijentea, 1 (Alderdi Eder parkea). Donostia

Gaia: Google Calendar erabili ezazu zure agenda antolatzeko eta zure gertakizunak kontaktuekin konpartitzeko.

Informazio gehiago...

Igo

Google Calendar

Cuándo: 15/11/2011

Dónde: Centro KZGUNEA ALDERDI EDER - Ijentea,1(Parque Alderdi Eder). Donostia

Tema: Utiliza Google Calendar para organizar tu agenda y gestionar las citas de tu negocio.

Más información...

Subir

Informazio gehiago:

Más información:

943 89 08 08

enpresa@urolakosta.org

Informazio zerbitzu hau PO FSE 2007-2013 VALORA egitasmoaren baitan eskaintzen da eta Europako Gizarte Fondoak %50 finantzatzen du

El servicio de información se desarrolla en el marco del PO FSE 2007-2013 VALORA, cofinanciado en un 50% por el Fondo Social Europeo (FSE)

Informazioa jasotzen jarraitu

Si no deseas seguir recibiendo

nahi ez baduzu, bidaliguzu e-mail bat eta aurki baja emango dizugu.

más información envíanos un e-mail y en breve te daremos de baja.